-

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad

BERDINTASUNAREN ALDEKO DONOSTIAKO EMAKUMEEN KONTSEILUA
CONSEJO DE LAS MUJERES DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN POR LA IGUALDAD

# Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektoriala – Consejo Sectorial para la Igualdad

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Eguna, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2024eko apirilaren 18an** / 18 de abril de 2024<br>**Udalbatza aretoa, Udaletxea** / Salon de Plenos, Edificio Consistorial<br>**17:00** |
| **Amaiera ordua**<br>Hora de finalización | **18:45** |

## GAI-ZERRENDA:
## ORDEN DEL DÍA:

| | |
|---|---|
| 1.-Aurreko aktaren onarpena | 1.-Aprobación del acta anterior. |
| 2.-Urteko plangintza proposamena | 2.-Propuesta trabajo anual |
| 3.-2024ko Udal aurrekontua | 3.- Presupuesto municipal 2024 |
| 4.-Emakumeen Etxea | 4.-Casa de las Mujeres |
| 5.-Besterik | 5.-Varios |

## BILERAN PARTE HARTU DUTE:
## HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARIA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **Aniztasuneko, Inklusioko eta Berdintasuneko zinegotzi ordezkaria**<br>Concejala delegada de Diversidad, Inclusión e Igualdad |
| **HERRITARREN ELKARTEAK ETA, BERDINTASUN ARLOAN, GIZARTEAN GARRANTZI BEREZIA DUTEN KOLEKTIBOAK**<br>ENTIDADES CIUDADANAS, COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL EN EL ÁMBITO DE LA IGUALDAD | **1.- ASADE Elkartea /Asociación**<br>**2.- ASPEGI**<br>**3.- EHU ko ikasle kontseiluaren berdintasun eta inklusio atala**<br>**4.- Elkartu**<br>**5.- Emakumeen Etxea Elkartea**<br>**6.- Emakumeak zientzian**<br>**7.- Intered Euskal Herria**<br>**8.- Mariren alabak**<br>**9.- Plazandreok**<br>**10.- Arrats**<br>**11.- ASADE Sindikatua / Sindicato**<br>**12.- ERNE** |

| | |
|---|---|
| **EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTE EDO EZ DIRA ETORRI**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA Y/O NO ASISTIERON | 1.- Gipuzkoako Emakume Banatuen elkartea/ Asociación de Mujeres Separadas de Gipuzkoa<br>2.-Mariren Alabak |
| **Norbanakoak**<br>Mujeres a título individual | |
| **TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK**<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | **1.- EAJ/PNV**<br>**2.- EH Bildu**<br>**3.-Elkarrekin Donostia**<br>**4.-PSE-EE**<br>**5.- PP** |
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>EQUIPO TÉCNICO MUNICIPAL | **Berdintasun Agentea /**<br>**Agente de Igualdad**<br>**Zerbitzuburua** |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektorialeko 17 kide eta 3 udal teknikari, idazkaritza tekniko lanetan.**<br><br>**Emakumezkoak /** Mujeres = 13<br>**Gizonezkoak /** Hombres = 0<br><br>13 personas integrantes del Consejo Sectorial para la Igualdad y 3 personas del equipo técnico municipal como secretaría técnica |
| **KONTSEILUKO IDAZKARITZA**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO | **Berdintasun Bulegoa** - Negociado de Igualdad<br>Okendo 9 / 943 48 34 68 / berdintasuna@donostia.eus |

## SAIOAREN BILAKAERA:

## DESARROLLO DE LA SESIÓN:

### 1. Aurreko aktaren onarpena

Akta onartu da.
Arrats: gogorarazi du aurreko legegintzaldian zerrenda batean jaso gabe zeuden gaiak jasotzen zirela, eta lan-sistema hori berreskuratzeko eskatu du.

### 2. 2024 urteko ekintza plana

Idazkariak barkamena eskatu du data aldatzeagatik, agenda-arazoak direla eta.

Urteko plangintza eta berdintasun-arloko aurrekontuaren eta "berdintasun-partiden" eskema paperean banatu dira. Berdintasun teknikariak berdintasunaren arloan gauzatzen diren proiektu garrantzitsuenak azaldu ditu:

- Berdintasunerako IV. Plana, aurten amaituko dena, eta arloan zein udaleko beste arlo batzuetan egiten diren jarduerak jasotzen dituena. Laster bidaliko da 2023ko gauzatzea.

### 1. Aprobación del acta anterior

Se aprueba el acta.

Arrats: recuerda que en la anterior legislatura se recogían temas pendientes en un listado, y pide que se recupere ese sistema de trabajo.

### 2. Plan de actuación del 2024

La secretaria se disculpa por el cambio de fecha, debido a problemas de agenda.

Se entrega en papel la planificación anual, y el esquema del presupuesto del área de igualdad y de las "partidas de igualdad". La técnica de igualdad explica los proyectos más importantes que se llevan a cabo en el área de igualdad:

- IV Plan de igualdad, que finaliza este año, y que recoge actividades que se hacen tanto en el área como en otras áreas municipales. En breve se enviará la ejecución de la planificación 2023.

- V. Planari dagokionez, asmoa izango litzateke urte amaierarako plangintza eta elkarteekiko partaidetza-prozesua diseinatzea. Beharrezkoa bada, kontraste-kontseilu espezifiko bat antolatuko da.

- Aurrekontuak genero-ikuspegiarekin aztertzen jarraituko da.

- Indarkeria matxistari dagokionez, hainbat mailatan lan egiten da, autonomiako eta estatuko arau-esparruaren babespean: esku-hartzea/arreta (gizarte-ekintza, Emakumeen Etxea), udal-langileentzako prestakuntza barne (gizarte-langileak, udaltzaingoa...) eta prebentzioa (indarkeria matxista prebenitzeko kanpaina, beste udal-zerbitzu batzuekin eta beste erakunde batzuekin koordinatuta lan egiten jarraitzen duena: jaiak, udaltzaingoa, turismoa, aldundia, Berdinsarea...), eta aurreko urteetako esperientziekin hobetzen.

- Emakumeen Etxea: duela ia 14 urte behin-behineko espazioan gaude, eta kokapen hobea lortu da; horretarako, espazioa pentsatu eta diseinatu behar da.

- Berdintasunerako udal-ordenantza: urteak dira Berdinsareak Udaletan berdintasun-ordenantzak onartzea proposatzen duela, berdintasun-legeak udal-errealitatera "lurreratzeko". Urrats garrantzitsua da, eta aurten bultzatuko da Donostiako Udalean. Prozesu luzea da, urtebete edo gehiago iraun dezake, eta une desberdinak egongo dira herritarren parte-hartzerako.

- Dirulaguntzak: 2023ko justifikazioak amaitu dira eta elkarte gehienek bigarren ordainketa jaso dute. 2024ko deialdirako 36 eskaera jaso dira, eta horietatik 4 elkarte berrienak dira. Ekainaren amaierarako aurreikusita dago ebazpena.

- Berdintasunerako III. Barne Plana: 50 langile baino gehiagoko enpresa den aldetik, Udalak bere berdintasun-plana dauka langileentzat, lan-alderdiei buruzkoa. Aurten IV. Barneko berdintasun-plana.

Hurrengo kontseiluetako gaien eta daten kronograma azaltzen da (honekin batera doa).

## 3.-Berdintasunerako 2024ko aurrekontua

Zinegotziak 2024rako arloaren aurrekontua azaldu du, baita horiek dituzten sail edo

- Respecto al V Plan, la idea sería tener para finales de año el diseño de la planificación, y del proceso participativo con las asociaciones. Si es necesario, se organizará un Consejo específico de contraste.

- Se va a continuar haciendo el análisis de presupuestos con perspectiva de género.

- Respecto a violencia machista, se trabaja en diferentes niveles, amparadas por el marco normativo autonómico y estatal: intervención/atención (acción social, Casa de las Mujeres), incluyendo formación a personal municipal (trabajadoras sociales, guardia municipal...) y prevención (campaña de prevención de violencia machista, en la que se sigue trabajando en la coordinación con otros servicios municipales y de otras instituciones: Fiestas, Guardia Municipal, Turismo, Diputación, Berdinsarea...) y mejorándola con la experiencias de años anteriores.

- Casa de las Mujeres: hace ya casi 14 años que estamos en el espacio provisional, y se ha conseguido una ubicación mejor, para lo que hay que pensar y diseñar el espacio.

- Ordenanza municipal de igualdad: hace ya años que Berdinsarea propone que se aprueben ordenanzas de igualdad en los Ayuntamientos, para "aterrizar" las leyes de igualdad a la realidad municipal. Es un paso importante, y se va a impulsar este año en el Ayuntamiento de Donostia. Es un proceso largo, que puede durar 1 año, o incluso más, y habrá diferentes momentos para la participación ciudadana.

- Subvenciones: han finalizado las justificaciones de 2023 y la mayoría de asociaciones ya han recibido el segundo pago. Para la convocatoria 2024 se han recibido 36 solicitudes, 4 de las cuales son de asociaciones nuevas. La resolución está prevista para finales de junio.

- III plan interno de igualdad: como empresa de más de 50 trabajadoras, el Ayuntamiento tiene su plan de igualdad para el personal, sobre los aspectos laborales. Este año se diseñará el IV. Plan de Igualdad interno.

Se explica el cronograma de temas y fechas de próximos Consejos (adjunto).

## 3. Presupuesto para igualdad 2024

La concejala de explica el presupuesto del área para 2024, así como las partidas de igualdad de los departamentos o entidades

erakundeen berdintasun-partidak ere, hau da, beste sail batzuek gauzatzen duten gastu eraldatzailea. Gastu eraldatzailearen zerrenda bidaltzea erabaki da, partida bakoitza zein proiektu zehatzetara bideratuko den azalduz.

## 4.-Emakumeen Etxea

Berdintasuneko zinegotziak azaldu du lurzatiaren berrantolaketaren xehetasun-azterketa idaztear dagoela. Azterketa hori eginda, eraikuntzarako lehiaketa argitaratu ahal izango da. Berrantolaketak 1.000 metro koadro aurreikusten ditu oraindik Emakumeen Etxerako, eta hori da zinegotziaren konpromisoa. Eraikin berean Amara Zaharreko auzo elkartearentzako eta Mundu Berriarentzako lekua erreserbatuko da. Administrazio-denborak beti dira motelak, baina proiektua aurrera doa.

Plazandreok-eko ordezkariak bere kezka adierazi du beste elkarte batzuentzako lekua dagoelako, eta Emakumeen Etxeak bere espazio propioa eta independentea izatea bermatzeko eskatu du. Zinegotziak erantzun du hori dela bere konpromisoa.

Asaderen ordezkariak esan du urte asko daramatzala bere elkartearentzat udal lokala eskatzen, eta gaia nola dagoen galdetu du. Berdintasun-teknikariak erantzun du ez dagoela ia entregatzeko lokalik. Gure kasuan, gainera, lokalen gaia zerbitzu osoari dagokio, ez berariaz berdintasun-arloari, eta arduradunari galdetzeko konpromisoa hartzen du.

## 5.- Varios

- Elkartu elkarteko ordezkariak galdetu du ea puntu kritikoen gaia lantzen jarraitzen den, aspaldi ez baitzaie deitu. Barruan lan egiten bada, berea bezalako elkarteak izateko eskatu du, gero gaizki egiten dena zuzendu behar ez izateko.

- Berdintasuneko zinegotziak adierazi du Miramongo teknologia-parkean Hedi Lamarr izeneko eraikin berri bat inauguratuko dela, eta aurrerantzean eraikin berri guztiei emakume zientzialarien izena jartzeko

que cuentan con éstas, es decir, el gasto transformador que ejecutan otros departamentos. Se acuerda enviar la lista del gasto transformador, explicando a qué proyectos concretos se va a destinar cada partida.

## 4. Casa de las Mujeres

La concejala de igualdad explica que está a punto de redactarse el estudio de detalle de la re-ordenación de la parcela. Teniendo ese estudio, se podrá publicar el concurso para la edificación. La re-ordenación sigue contemplando 1.000 metros cuadrados para la Casa de las Mujeres y ése es el compromiso de la concejala. En el mismo edificio va a reservarse espacio para la asociación de vecinos de Amara Zaharra y para Mundo Nuevo. Los tiempos administrativos son siempre lentos, pero el proyecto avanza.

La representante de Plazandreok expresa su preocupación por que haya espacio para otras asociaciones, y pide garantizar que la Casa de las Mujeres tenga su espacio propio e independiente. La concejala responde que ése es su compromiso.

La representante de Asade dice que lleva muchos años pidiendo local municipal para su asociación, y pregunta cómo está el tema. La técnica de igualdad responde que no hay apenas locales para entregar. En nuestro caso, además, el tema de locales se lleva a nivel de todo el servicio, no específicamente desde el área de igualdad, y se compromete a preguntar a la persona responsable.

## 5. Varios

- La representante de Elkartu pregunta si se sigue trabajando el tema de puntos críticos, ya que hace tiempo que no se les llama. Pide que si se está trabajando internamente, se cuente con asociaciones como la suya, para no tener luego que corregir lo que se hace mal.

- La concejala de igualdad comenta que en el parque tecnológico de Miramón se va a inaugurar un nuevo edificio con el nombre de Hedi Lamarr, y se han comprometido a que, en adelante, a todos los nuevos edificios se les

konpromisoa hartu dutela. Zinegotziak emakume zientzialarien elkartea gonbidatu du Hedi Lamarren figurari buruzko hitzaldi bat emateko, eta parkean berdintasunaren alde egiten diren jardueren errepasoa egiteko. Data jarrita dagoenean, guztiei bidaliko zaie gonbidapena.

- Emakumeen Etxeak adierazi du udal eraikinetako garbitzaileak harremanetan jarri direla haiekin; izan ere, Gizatzen enpresarekin egindako lehiaketa berriarekin, langileen baldintzek okerrera egin dute, bai berriek, bai subrogatuek. Zinegotziak erantzun du kontratu honetarako ezinezkoa dela, baina hurrengo kontraturako genero klausulak lantzen ari direla, eta aurten aterako dela. Udal osoko bilkuretan aspalditik jorratzen den gaia da, eta konponbide zaila du, azpikontratazioa baita.

- Elkartuko ordezkariak galdetu du ea Emakume Zientzilariak elkarteak ezagutzen duen Donostian herritarrek zientziarako parte hartzeko duten proiektua, Gizarte-kontseiluan aurkeztu zena. Zinegotziak oraindik sortzen ari den proiektua dela esan du, eta harremanetan jartzeko konpromisoa hartu du.

- Haurraldeko ordezkariak indarkeria matxistan esku hartzeko koordinazio-protokoloei buruz galdetu du, eta esan du elkarteentzako arreta-gida, iaz egina, dokumentu erraza eta praktikoa dela, beren elkartean asko erabiltzen dutena. Indarkeria bikarioaz eta sexualaz ohartarazi du, eta azaldu du elkarteei zuzendutako sexu-indarkeriako protokolo bat lantzen ari direla, biktimak datozkielako eta batzuetan ez daudelako horretarako behar bezala prestatuta. Elkarteentzako sexu-indarkeria artatzeko protokolo bat egiteko eskatu du.

Esan du, halaber, 2025ean Beijing + 30 betetzen dela. Kontseilu gisa, 2025eko 12 hilabeteetan liburuxkaren bat ateratzea edo 12 ikono zabaltzea proposatu du, urtean zehar gaia lantzeko.

Azkenik, aipatu du zuen elkartean laguntza behar dutela emakume-taldeentzako kultura-espazio edo -ekitaldietarako gonbidapen edo sarrera merkeagoak lortzeko, goizeko ordutegian. Emakumeak zientzian elkarteak jarduera bat eskaintzen dio, eta beste kide batek dio San Telmo museoak ere doako tailerrak eskaintzen dituela. Zinegotziak Donostiako orfeoiaren kontzertuetarako eta

ponga nombre de mujeres científicas. La concejala invita a la asociación de mujeres científicas ofrezcan una charla sobre la figura de Hedi Lamarr, y se haga un repaso también de las actividades para la igualdad en el Parque. Cuando esté fijada fecha, se enviará la invitación a todas.

- Desde la Casa de las Mujeres plantean que se han puesto en contacto con ellas las limpiadoras de edificios municipales, ya que con el nuevo concurso con la empresa Gizatzen, las condiciones de las trabajadoras han empeorado, tanto las nuevas como las subrogadas. La concejala responde que para el presente contrato es imposible, pero que se están trabajando las cláusulas de género para el siguiente contrato, que se sacará este año. Es un tema que se lleva tratando hace tiempo en Plenos municipales, y es de difícil solución, ya que es una subcontratación.

- La representante de Elkartu pregunta si la asociación Emakume Zientzilariak conoce el proyecto de participación ciudadana para la ciencia en Donostia, que se presentó en el consejo social. La concejala dice que es un proyecto que está aún en creación, y se compromete a ponerles en contacto.

- La representante de Haurralde pregunta sobre los protocolos de coordinación para la intervención en violencia machista, y dice que la guía de atención para las asociaciones, elaborada el año pasado, es un documento sencillo, práctico, que utilizan mucho en su asociación. Llama la atención sobre la violencia vicaria y la sexual, y explica que están trabajando en un protocolo de violencia sexual dirigido a las asociaciones, ya que les vienen víctimas y a veces no están suficientemente preparadas para ello. Pide que se elabore un protocolo de atención de violencia sexual para asociaciones.

Comenta también que en 2025 se cumple Beijing + 30. Propone que como Consejo, durante los 12 meses del 2025 se saque algún folleto, o se difundan 12 iconos... que se trabaje el tema a lo largo del año.

Por último, menciona que en su asociación necesitan ayuda para conseguir invitaciones o entradas más baratas a espacios o eventos culturales en horario matinal para grupos de mujeres. Emakumeak zientzian le ofrece una actividad, y otra integrante comenta que museo de San Telmo también ofrece talleres gratuitos. La concejala propone conseguir

beste kultur ekitaldi batzuetarako sarrerak lortzea proposatu du.

Beste gairik ez dagoenez bilera 18:45etan bukatzen da.

entradas para conciertos del orfeón donostiarra, y para otros eventos culturales.

No habiendo más temas que tratar, finaliza la reunión a las 18:45.